

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 08,30 horas del día 17 de agosto de 2023, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D^a. Miren Oyarbide Lapazarán, D^a Ana Azanza Burusco y D. Mikel Gaztelu Alonso, bajo la presidencia del alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Iurre.

Único.- ACUERDO EN RELACIÓN AL SABOTAJE DE LAS PASADERAS DE SOROLUZZEA. (Proyecto Borrasca Barra, subvencionado con ayudas del Estado y del Gobierno de Navarra.)

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que justifica la convocatoria extraordinaria de sesión dada la gravedad de los hechos acaecidos en torno al proyecto de construcción de las Pasaderas de Soroluzea. Dado que la Secretaria se encontraba de vacaciones estimó que la sesión fuese en cuanto se incorporara al trabajo.

Tras ello, hace un preámbulo del tema que ha generado la situación actual.

Explica que a raíz de la declaración de zona catastrófica por el paso de la borrasca Barra en diciembre de 2021, entre otras infraestructuras, el puente de Soroluzea que salvaba la regata Basajaunberrokoerreka, quedó seriamente afectado en lo referente a la cimentación de sus estribos. Cuando Ekilan Ingeniería, empresa encargada de redactar el proyecto de reparación de los desperfectos estudió el caso, dado el mal estado de la cimentación y los problemas de ubicación del puente debido a la alta velocidad del agua que toma en ese punto por su estrechez, propuso colocarlo a cuarenta metros aguas arriba. Se trata de una zona de caudal más remansado porque la anchura del cauce es mayor. Las vigas del puente desplomado, por su corta longitud, eran inservibles, en consecuencia, se acordó con el visto bueno del Ayuntamiento, sustituir el puente por unas pasaderas construidas “in situ”.

Las obras son financiadas una parte por el Gobierno de España, otra parte por el Gobierno de Navarra y otra por el Ayuntamiento de Auritz/Burguete, es decir dinero público que en definitiva es de toda la ciudadanía, y que se obtiene gracias, entre otras recaudaciones, a los impuestos que como contribuyentes estamos obligados a ingresar a las diferentes administraciones.

Resuelto el concurso los trabajos fueron adjudicados a Excavaciones Abaurrea S. L. El pasado 26 de julio fueron abonados por ello 24.404, 01 € de los que 5.495,20 € se pueden imputar a la construcción de las pasaderas dañadas. Cifra a la que hay que sumar el coste de redacción de proyecto y dirección de obra, trabajo llevado a cabo por Ekilan Ingeniería.

En la noche del 31 de julio al 1 de agosto una o varias personas dieron mazazos a dos de los seis poyos que cuenta la infraestructura dejando la obra seriamente dañada y con muy mala perspectiva de reparación ya que se trata de elementos construidos de una pieza en el lugar.

El 3 de agosto interpuso una denuncia de los hechos ante la Guardia Civil del puesto de Burguete y preguntado por el agente si disponía de algún dato identificativo sobre el autor o autores le respondió que no pero que no tiene ninguna duda de que el hecho se ha cometido por vecino o vecinos de Auritz/Burguete.

Al margen del tema legal y de que podemos estar ante un hecho constitutivo de delito, lo cierto es que moral y éticamente hablando se trata de un acto rastrero y de desprecio absoluto a la vecindad de Auritz/Burguete, al Ayuntamiento que es la institución que representa a los vecinos, a las empresas que han participado en su construcción y al resto de instituciones que han colaborado en el proyecto. Además, de ser un hecho premeditado, traicionero, ruin, cobarde y absolutamente absurdo y sin sentido, que dice mucho de la baja catadura ética del actor o actores del hecho.

El concejal Sr. Juandeaburre propone ampliar la moción planteada en el expediente con un punto más que diga:

El Ayuntamiento es la institución más cercana a la ciudadanía, a la que libremente podemos acudir tanto si se necesita algo de ella, como si no se está de acuerdo con sus actuaciones y se quiere mostrar su disconformidad, siendo todas y todos concedores de las vías legales y democráticas existentes para acceder a la institución.

Estando toda la Corporación de acuerdo se aprueba por unanimidad la moción con los siguientes puntos:

- 1.) Ante el execrable sabotaje efectuados en las pasaderas de Soroluzea el ayuntamiento manifiesta que se trata de un acto de cobardía, mezquino, intolerable y de desprecio absoluto al vecindario de Auritz/Burguete que merece la máxima repulsa tanto de sus instituciones como de su población.
- 2.) En caso de que la investigación abierta diese sus frutos actuar con todas las armas legales que la ley disponga para que el autor o autores paguen por los daños cometidos en un bien perteneciente al común de los vecinos y cuyo fin es dar un servicio a la comunidad de Auritz/Burguete y a los forasteros que transitan por el paraje.
- 3.) El Ayuntamiento es la institución más cercana a la ciudadanía, a la que libremente podemos acudir tanto si se necesita algo de ella, como si no se está de acuerdo con sus actuaciones y se quiere mostrar su disconformidad, siendo todas y todos concedores de las vías legales y democráticas existentes para acceder a la institución.
- 4.) Dar traslado a la población de este acuerdo remitiendo una copia de la presente acta por todas las casas.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 09:00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2023ko abuztuaren 17ko 8:30ean, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Bakarra.- (Barra Erauntsia-proiektua, Estatuak eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundua.)

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta bilkurarako ezohiko deialdia justifikatu du, Soroluzeako pasabideak eraikitzeke proiektuaren inguruan izandako gertakarien larritasuna dela eta. Idazkaria oporretan zegoenez, lanera itzuli bezain laster bilkura egitea erabaki zuen.

Ondoren, egungo egoera sortu duen gaiari buruzko hitzaurrea egin du.

Azaldu duenez, 2021eko abenduan Barra erauntsiaren igarobideak hondamendi eremu izendatu zuenez, beste azpiegitura batzuen artean, Basajaunberrokoerreka gaintitzen zuen Soroluzea zubia kaltetua izan zen, zimenduei dagokienez. Ekilan Ingeniaritzak, kalteak konpontzeko proiektua idazteaz arduratzen den enpresak, kasua aztertu zuenean, zimenduak egoera txarrean zeudenez eta zubia dagoen tokian urak hartzen duen abiadura handia dela eta, berrogei metro ibaian gora jartzea proposatu zuen. Eremu horretan ura geldiago doa, ibilgua zabalagoa baita. Eroritako zubiaren habeak, beren luzera laburragatik, erabilezinak ziren. Ondorioz, Udalaren oniritziarekin, zubia "in situ" eraikitako pasabideekin ordezkatzera erabaki zen.

Obrak Espainiako Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta Auritzeko Udalak finantzatzen dituzte, hau da, diru publikoa, azken batean, herritar guztiena dena, eta, besteak beste, zergadun gisa administrazioei ordaindu behar dizkiegun zergeri esker lortzen dena.

Lehiaketa ebatzita lanak Excavaciones Abaurrea S.L. enpresari esleitu zitzaizkion. Joan den uztailaren 26an 24.404,01 € ordaindu zitzaizkion eta horietatik 5.495,20 € kaltetutako pasabideak eraikitzeari dagozkio. Horri proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza gehitu behar zaizkie, eta lan hori Ekilan Ingeniaritzak egin du.

Uztailaren 31tik abuztuaren 1erako gauean, pertsona batek edo batzuek hainbat mazo-kolpe eman zizkieten azpiegituraren sei zutabeetako biri, eta kalte handiak eragin zituzten, ia konpontzeko aukerarik gabe; izan ere, tokian bertan pieza batetik eraikitako elementuak dira.

Abuztuaren 3an, gertakarien salaketa jarri zuen Aurizko Guardia Zibilaren postuaren aurrean, eta, galdetu ziotenean ea egileari edo egileei buruzko identifikazio-daturik ba ote zuen, ezetz erantzun zuen, baina ez duela zalantzarik egileak Auritzeko bizilagunen bat edo batzuek direla.

Legea alde batera utzita, eta delitua izan daitekeen egitate baten aurrean egon gaitezkeela alde batera utzita, moralki eta etikoki, Aurizko auzotasuna, Udala (herritarrek ordezkatzeko dituen erakundea), hura eraikitzen parte hartu duten enpresak eta proiektuan lagundu duten gainerako erakundeak mespretxatzen dituen ekintza da. Aldez aurretik pentsatutako ekintza izateaz gain, traiziozkoa, zarpaila, koldarra eta erabat zentzugabea da, egin dutenen etika apalaz asko esaten duena.

Juandeaburre zinegotzi jaunak espedientean planteatutako mozioari honakoa gehitzea proposatu du:

Udala herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea da, eta libreki jo dezakegu bertara, bai harengandik zerbait behar badugu, bai bere jarduerekin ados ez bagaude eta desadostasuna adierazi nahi badugu. Izan ere, erakunde horretara iristeko dauden bide legal eta demokratikoak ezagunak dira.

Udalbatza osoa ados dagoenez mozio hau onetsi da aho batez:

- 1.) Soroluzeako pasabideetan egindako sabotaje gaitzesgarriaren aurrean, Udalak adierazi du Aurizko bizilagunekiko ekintza koldar, zital, jasanezin eta erabateko mespretxuzkoa dela, eta erakunde zein herritarren aldetik gaitzespenik handiena merezi duela.
- 2.) Irekitako ikerketak fruituak ematen baditu, legeak xedatzen dituen legezko baliabide guztiekin jardungo da, egileak edo egileek bizilagunen ondasun komun batean egindako kalteak ordain ditzaten, izan ere ondasun horren helburua da Auritzeko komunitateari eta parajeen dabilzan pertsona guztiei zerbitzu bat ematea.
- 3.) Udala herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea da, eta libreki jo dezakegu bertara, bai harengandik zerbait behar badugu, bai bere jarduerekin ados ez bagaude eta desadostasuna adierazi nahi badugu. Izan ere, erakunde horretara iristeko dauden bide legal eta demokratikoak ezagunak dira.
- 4.) Bizilagunei erabaki honen berri ematea, akta honen kopia etxe guztietara igorritz.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 09:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.